

ESPERIENTZIAREN IZENA: Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola. Gasteiz

VITORIA
GASTEIZ

berdintasuna
igualdad

OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola.
- **Erakunde mota:** Publikoa.
- **Sortze-urtea:** 2011.
- **Jarduera-sektoreak:** Emakumeen berdintasuna eta ahalduntzea. Ildo estrategikoak: Feminismoa. Genero-ikuspegia. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa. Identitatea. Subjektibotasuna eta balio-aldaketa. Kultura-artekotasuna eta elkartasuna. Kultura birdefinitzea. Komunikazioa eta trebetasuna. Sexu- eta genero-identitateak.
- **Egitura:** Berdintasan Zerbitzua eta Eskola Kudeatzeko Idazkaritza Teknikoa (soldatapeko pertsonala eta boluntarioa).
- **Kokapena:** Santa Maria, 11 - Etxanobe Etxea. Vitoria-Gasteiz.
- **Webgunea:** <http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?accionWe001=ficha&id-oma=es&accion=cuadroMando&claveArea=88&claveTema=89>
- **Esperientziak jorratzen duen gaia:** Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola.
- **Jarduera eremua:** Lokala.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Itziar Abad. Berdintasan-teknikaria.
- **Telefonoa:** 945161345
- **Helbide elektronikoa:** igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Eskola garatuz eta handituz joan da, balio handiko tresna baita berdintasunaren helburuan eta ahalduntze pertsonalari, kolektiboari eta asoziatiboari dagokienez aurrera egiteko.

Haren ibilbidean zehar, emakumeentzako elkargune gisa finkatu da. Bertan, askotariko interes eta beharrei erantzuna ematen zaie:

- Elkartzeko eta hartu-emanetarako lekua da.
- Feminismoan eta genero-teorietan prestatzeko espazioa da.
- Gogoeta egin eta errealitatearen beste ikuspegi batzuk aurkitzeko esparrua da.
- Lan-taldeak eta sareak sendotzeko eta haien sorrera errazteko aukera da.

TESTUINGURUA

Zeuden beharrak: Jardueretan parte hartzen duten pertsona eta taldeentzako elkargunea izango den berezko espazioa behar da. Espazio alternatibo bat elkarte feminista eta emakume- taldeentzat, baita berdintasunaren alde lan egiten duten beste elkarte eta eragileentzat ere, non ahalduntze kolektiboa lantzeko era berriak sortu eta antolatuko diren, ezinezkoa baita hori egitea erreferentziazko espazio fisikorik gabe. Emakumeen Etxea izango da espazio hori. Gaur egun proiektu-fasean dago, Udaleko alderdi politiko guztiek onartuta.

Aldeko aurrebaldintzak: Eskolaren ibilbidea eta finkapena Gasteizen. Adostasun politikoa eta asoziatiboa.

Aurkako aurrebaldintzak: Proiektu guztietan gertatzen den bezala, erne egon behar da berritzeko, eta errealtate guztiak ikuspegi intersektional eta barneratzaile batekin txertatu behar dira.

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

Berdintasunaren helburuan eta emakumeen ahalduentze pertsonalari, kolektiboari eta asoziatiboari dagokienez aurrera egiteko helburua betetzea.

Zer lortu zen?

Emakumeentzako prestakuntza- eta laguntza-tresnak sortzea.

Nola lortu zen?

Diseinaturiko ildo estrategikoen arabera prestakuntza-jarduerak abian jarri eta hiriko mugimendu feministak eta asoziatiboak parte hartuz.

Nork ahalbidetu zuten?

Berdintasun Zerbitzuak, proiektuan laguntzen dion aholkularitza-etxeak, hiriko mugimendu feministak eta udal-zerbitzuek.

Indarrak eta ahuleziak/zailtasunak

Indarrak:

- Gasteizko Udako Berdintasun Planaren Ahalduentze Ardatzaren barruko ildo estrategikoa da Eskola. Berdintasun Zerbitzuak bultzatzen du, mugimendu feministak eta asoziatiboak onartzen du eta erantzuna ematen die Gasteizko herritarrei eta, bereziki, emakumeei.

Ahuleziak/zailtasunak:

- Zaila da askotariko emakumeek Eskolan parte hartzea (hori, aldi berean, erronka handia da).

Arrakasta faktoreak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ahalduentze Eskolen Sareko kide da Gasteizko Eskola, eta haren helburuak eta estrategiak partekatzen ditu.

Ikasitako irakaspenak

Ahalduentze indibidualetik kolektibora igarotzearen eta prozesuak bultzatzearen garrantzia.

Etorkizunerako erronkak

Emakumeen ahalduentze kolektiboa eta eragin politikoa. Askotariko emakumeek Eskolan maiz eta aktiboki parte hartzea.